

UDAL KIROL KONTSEILUA: AKTA

ESKEMA	
<u>Izenburua</u>	1. UDAL KIROL KONTSEILUA..... zbkia: 02-10
<u>Bileraren datuak:</u>	
<u>Bertaratutakoak</u>	Bertaratutakoak: Oarsoaldea I.K.E.- Mikel Gaztelumendi Oartzungo S.S.K.T. – Igor Puente eta Josemi Oartzun K.E. – Jose Ignacio eta bi ordezkari gehiago Girizia Mendizale Taldea – Txost – Antton Mendizabal eta Eskarne Hurtzaro ikastola – Alaitz Bergaretxe Elizalde Herri Eskola – Eva Getaria GEZAK – Josetxo Euskal Makila taldea – Jon eta Xabier Oartzun Udaleko Gazteria eta Kiroletako zinegotzia- Karmele Irastorza Oartzun Udaleko Gazteria eta Kiroletako teknikaria- Jokin Sukuntza Oartzun Udaleko Udal Kirol Kontseiluko koordinatzailea- Donibane Azkarate
<u>Ez dira etorri:</u>	Ez dira azaldu: Oartzun Udaleko Alkatea Oiarpe K.E. Esait Okisa S.A. Power Rangers Areto Futbol taldea Elizaldetarrak Judo Elkartea Tximeleta K.E. Hurtzaro Kirol Elkartea Kizkitza Makazaga Rexu Mazusta M ^a Asun Arizkuren Lartaun Zikloturistak Elkartea Hurtzaro Mendi Taldea Girizia sokatira Girizia eskalada Girizia txirrindularitza Honbu kenpo – kai taldea HELTA

<u>Gai zerrenda</u>	<p>Eguna: 2010. eko Maiatzaren 27 a.</p> <p>Hasiera ordua: 19:00</p> <p>Amaiera ordua: 20:50</p> <p>Gai zerrenda:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. 09-10 denboraldiko datuen aurkezpena 2. Eskola Pilota egitasmoaren balorazio aurkezpena 3. 10-11 denboraldiko funtzionamendu irizpideak 4. 10-11 denboraldirako proiektu eta berrikuntzen proposamenak 5. Iradokizunak eta galderak
---------------------	--

1. Modu grafiko batean denboraldiko datu orokor batzuk azaldu ziren eta elkarte eta taldeek, beraiei buruzko informazio zehatza eskuragai zutela komentatu zen.
2. Egitasmoaren nondik norakoak, lehen urteko froga nola joan den eta ebaluazioa nola eta zertarako egin den azaldu zen. Ebaluazioaren emaitzetako batzuk ere aditzera eman ziren.
3. Funtzionamendu irizpideetan, diru laguntzen inguruko prozedurak azaldu ziren. Bi mailatan banatuak, eskaera epeak eta onarpen epeak. Ordainketa epea ez zen zehaztu gure sailetik kanpo dagoen gaia dela azalduz.
Data baseko datu bilketari buruz hainbat gomendio azaldu ziren. Data basea erabiltzeko elkarte eta taldeen elkarlana eskatu zen eta datorren denboraldiko datuak noizko sartu behar diren komentatu genuen.
Instalakuntzen erabilerarako eskaera epeen inguruko xehetasunei buruz aritu ginen.
4. Proiektu berrien inguruan, ur jardueren antolaketaren gaia azaldu zen. Gaia zertan den, ze bilera egin diren, zein zirriborro lantzen hasi, zein helburu finkatu beharko diren...
5. Galdera eskaeren tartea:
 - Diru ordainketetan aurrerapenak egiteko modua aztertzea eta ahal bada ordainketa epeak finkatzea (bi zatitan) eskatu zuten OSSKT eta Oarsoaldea I.T -ko kideek.
 - Data basean datuak sartu beharra dela eta, Urriari abisua gogorarazteko eskaera egin du Elizalde H.E -ko kideak.
 - Kirol instalakuntzen erabilpenaren azterketa bat egiteko eskaera luzatu zuen berriro ere Oarsoaldea I.T ko kideak.
 - Herriko kirol talde eta elkarteentzako lokal berriaren horniketari buruzko informazioa eskatu zen eta Gezakeko kideak bere erantzuna emateko aukera izan zuen.
 - Herriko talde eta elkarteek, finantziario iturri berriak bilatu ahal izateko, udalak bitartekari eta elkarlan funtzioak betetzea eskatu zen OSSKT ren aldetik beste elkarte askoren adostasuna izanik. Fundazio bat eratu edo udalak duen pisua eta baliabideak erabiltzea proposatu zen., udalak, elkarteek baino indar gehiago dutela argudiatuz. Enpresengana iritsi eta eskaintza erakargarri bat egin ahal izatea, publizitate eskaintza zabalagoa, baldintza bereziak adostu ahal izatea udalarekin...
 - Txost pilota eta Kultur elkartearen aurkezpena izan genuen. Fusioa azaldu eta hiru helburu nagusi azaldu zituzten ordezkariak:sustapena, heziketa eta kultura. Ateak guztiz zabalik dituen elkarte berria sortu dela aditzera eman dute.
 - Entrenatzaileen formakuntzaren inguruko galdera luzatu du OSSKT-ko kideak. Ondoren gaiari buruzko iritzi trukaketa zabaldu da.
 - Kiroldegiaren erabilerari buruzko hausnarketa eta eskaera zehatza bota dute OSSKT-ko kideek. Kirol jarduerak ez diren ekitaldi eta aktibitateek sarri pista okupatu ohi dutela eta, beste irtenbide batzuek galdegin dute, ez beti pista okupatzeko. Honek, eztabaida baten ondoren, herriak kultur areto edo gunek bat duela azalarazi du.

Oiartzunen, 2010 .eko Maiatzaren 31 ean.